

IRAKASLE-PLAZEN LEHIAKETETAN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK BETETZEKO ETA HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BERMATZEKO JARRAIBIDEAK

Euskara Batzordeak 2025eko martxoaren 27ko bileran onartua

1. OINARRI OROKORRAK

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2024ko ekainaren 11n **Irakasle Laguntzaile Doktoreak hautatzeko prozesuetarako** onartu zuen araudiak ondoko hau zehazten du:

«Plazan euskaraz irakatsi behar bada, proposaturiko UPV/EHUko zortzi pertsonetatik gutxienez bost gai izango dira hizkuntza horretan irakasteko (..) Lehiakideren batek proba euskaraz egin nahi duela adierazi badu eskarian, bermatuko da epaimahaia osatzen dutenek autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan jarraitu ahal izango dituztela probak, eta horretarako behar diren baliabideak jarriko dira. Horrelakoetan, ahalegina egingo da epaimahaiko kideetako bat, gutxienez, elebiduna izan dadin.»

Bestalde, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2024ko irailaren 26an **Irakasle Osoak eta Agregatuak hautatzeko eta kontratatze**ko prozeduretarako onartutako araudiak ondoko hau zehazten du:

«Plazaren hizkuntz eskakizunak euskara jakitea eskatzen badu, gutxienez batzordekideetako batek eta haren ordezkoez euskaraz irakasteko gaitasuna izango dute. UPV/EHUk bermatuko du batzordeak probak EAEko bi hizkuntza ofizialetan ebaluatzea, eta horretarako behar diren bitartekoak jarriko ditu.»

«18.3.– Irakasle osoen kategorian, hiru proba egingo dira:

(..)

b) Bigarren proban, aurkeztu eta hautapen batzordearekin eztabaidatuko da proposatutako irakaskuntza programa, bai eta ikerketa proiektua edo proiektuak ere. Proba honen zati bat egingo da plazaren profilaren hizkuntza bakoitzean.»

«18.6.– Irakasle agregatuen kategorian, hiru proba egingo dira:

(..)

b) Bigarren proban, hautagaiak aurkeztutako programako gai bat azaldu eta eztabaidatuko da batzordearekin, hautagaiak aukeratua zozketaz ateratako hiru gaien artetik. Proba honen zati bat egingo da plazaren profilaren hizkuntza bakoitzean.»

Irakasle Titularren eta Katedradunen plazen kasuan ere zehazten da proba/aurkezpen zati bat egin behar dela plazaren hizkuntza bakoitzean.

Unibertsitate Sistemaren 2/2023 Lege Organikoari jarraiki osatzen diren irakasle-plazen epaimahaietan zenbait kide EAetik kanpokoak izan behar dira eta, kasu gehienetan, ez dira euskaldunak izango. Epaimahaiak osatzeko jarraibideen arabera, euskara daramaten plazetan beti egon behar da kide euskaldunen bat.

Nolanahi ere, izangaien artean maiz zalantzak sortzen dira probetan "hizkuntza-eskubideak bermatzeko bitartekoen" inguruan. Zalantza horiek argitzea da ibiltorri honen helburua.

2. JARRAIBIDE OROKORRAK

- 2.1 Epaimahaiak probak EAEko bi hizkuntza ofizialetan jarraitu ahal izateko beharrezko **bitartekoak** dioen tokian ondokoa ulertu behar da: ahozko probak jarraitzeko **aldibereko interpretazioa**.
- 2.2 Euskaratik gaztelaniarako interpretazio-zerbitzua baino ez da bermatuko.
- 2.3 Epaimahaiak eskatu behar du interpretazio-zerbitzua, inola ere ez izangaiak. Eskaria helbide honetara bidaliko du epaimahaiak plazari eta hautagaiari buruzko xehetasunekin batera: itzulpenak@ehu.eus
- 2.4 Doktore Laguntzaileen plazetan izangaiak eskaria betetzen duenean proba euskaraz egitea eskatzen badu eta epaimahaikide guztiak euskaldunak ez badira, interpretazio-zerbitzua eskatu behar du epaimahaiak.
- 2.5 Irakasle Agregatu, Oso, Titular eta Katedradunen kasuan, epaimahaiaren eskuetan uzten da erabakitzea interpretazio-zerbitzua beharrezkoa den ala ez eta, beharrezkotzat joz gero, eskatzea.

3. INTERPRETAZIO-ZERBITZUARI BURUZKO ARGIBIDEAK

- 3.1 Epaimahaiak izangairen batentzat aldibereko interpretazio-zerbitzua eskatzen badu, Hizkuntza Zerbitzuko kide bat harremanetan jarriko da izangai horrekin, beharrezko dokumentazioa eskatzeko eta entsegu bat egiteko, hautagaiaren defentsaren kalitatea interpretazioak baldintzatzen ez duela ziurtatzeko.
- 3.2 Plaza bererako hautagai bat baino gehiago badago, edota egun berean plaza baten baino gehiagoren probak egingo badira, proba egiteko hurrenkera ezartzeko zozketa gutxienez bi egun lehenago egingo da, interpreteek zer ordutan egingo duten lan aldeaz aurretik jakin dezaten.
- 3.3 Epaimahaiaren eginkizunen artean honako hauek daude:
 - Interpretazio-kabina duen lokal bat erreserbatzea probak egiteko eta, halaber, egun horretarako teknikari bat izatea martxan jartzeko.



- Epaimahaikideren bat proben egunean bertaratuko ez bada, probak bideokonferentzia bidez egitea ere bermatu behar da. Horrelakoetan, teknikariak arduratu behar dira beharrezko azpiegitura doitzeaz.
- Proba bideokonferentzia bidez jarraitzen duten epaimahaikideek baldintza hauek bete behar dituzte: a) konexio egokia, b) tresna informatikoak erabiltzeko ezagutza eta c) zuzeneko soinuaren eta aldibereko interpretazioaren arteko aldaketa egiteko gai izatea.

Miren Igone Zabala Unzalu

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordea
Vicerrectora de Euskera y Planificación Lingüística